

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Aibarko Erdi Aroko azoka, Berako `Lurraren Eguna´eta Elizondo eta Tafallako udazkeneko azokak, asteburu honetarako turismoko eskaintzak

*Lau udalerriek kultura eta aisialdiko intereseko zenbait ekintza hartuko dituzte, kirol-jarduerekin, kontzertuekin, kaleko animazioarekin edo produktu tipikoen dastatzearekin*

Jueves, 25 de octubre de 2012

Aibar, Bera, Elizondo eta Tafallak zenbait ospakizun hartuko dituzte asteburu honetan, eskulangintza-azoken eta nekazaritzako elikagaien produktuen inguruan eta turismo-intereseko kultur eta aisialdiko eskaintza dibertsifikatuarekin.

Zehazki, Aibar Erdi Aroko bere iraganera itzuliko da. [Programa](#)ren erakargarritasunen artean nabarmentzen dira: Erdi Aroko azoka bat, bertan 60 eskulangiletik gora izango direlarik larunbatean eta igandean (11:00etatik 20:00etara); bisita gidatuak hirigune historikotik eta ingurutik (Bizkaiko elurzuloa, adibidez), antzezlanak (18:00etatik 20:00etara igandean) eta Nafarroako txerriaren dastatzea (larunbatean 20:00etan); edo meza San Pedroko eliza erromanikoan, Erdi Aroko errito nahiz ohiturak errekuperatuko dituen elizkizun erlijiosoarekin (larunbata 11:00etan).

Igandean `Lurraren Eguna´-ren XXVI. edizioa ospatuko da Beran. Lurrari lotutako produktu nahiz lanen inguruko jardunaldia da, eta bertan izango dira: eskulangileak, baratzezainak, gazta- eta sagardo-lehiaketak, haurrentzako krosa, antzerkia, musika eta dantza edo erakusketak. Berako `Gure Txokoa´elkarteak antolatuta, Bidasoako eskualdeko [landa-festa aipagarrienetakoa](#) da. Altzateko auzoak eskulangintza-azoka hartuko du goizeko 10:00etatik aurrera, eta bertan bizilagun nahiz bisitariak lurreko produktuen erakusketa batekin, taloekin eta fruta nahiz barazkien erakusketarekin gozatu ahalko dute. Gainera, egun guztian musika, bertsolariak, dantza, gazta- eta sagardo-lehiaketak izango dira, bai eta argazki-erakusketa bat ere.

### Tafallako eta Elizondoko udazkeneko azokak

Abeltzain eta eskulangileak, aktoreak, musikariak eta kirolariak Tafallara joango dira urriaren 24tik 28a bitarte. [Programa](#)ren arabera, larunbatean eskulangintzako eta nekazaritzako elikagaien azoka tipikoaz gain (10:00etan zabalduko da), honako ekintza hauek ere izango dira: zonaldeko produktuen dastatzeak(12:00etan), kalejirak, kontzertuak, `txapela´ jaurtiketaren lehiaketa erretiratutako pertsonentzat (11:00etan), puzgarriak (16:30etik 19:30era), trial-erakustaldi bat Benito Ros-en eskutik (17:30etik 19:00ak arte), txakur-trebeziako lehiaketa (16:00etan),

gazteentzako joko elektronikoak (17:00etatik 20:00ak arte), musika-animazioa (20:00etatik 22:00ak arte) eta kontzertua *Pseudobandaren* eskutik (goizaldeko 01:00ean). Igande goizean, nekazaritzako elikagaien azokaz gain, argazki digitalaren lehiaketa egingo da (10:00etan), txerri aparta emateko ekitaldia (12:00etan) pilota-jaialdia (bikote gazteak eta emakumeen gomazko paleta Maite Ruiz de Larramendi eta Susana Muneta Munduko txapeldunekin, 11:30ean) puzgarriak (11:00etatik 14:00etara) eta kalejirak (12:45ean).

[Elizondon](#) ere azoka izango da asteburu honetan. Ostiral goizean Merkatu plazan abere, makina eta gainerako tresnerien erakusketa izango da; haiekin batera, herriko kaleetan zehar eskulangintza-postuak jarriko dira, ostiral nahiz larunbatean egun guztian zabalik izango direnak. [Programaren](#) arabera, bertsolariak, pilota-partidak eta musika ere egongo da. Larunbaterako azoka bat jarriko dela aurreikusita dago eta iganderako kontzertu bat (Pottoka & Eskortz eta Iñigo Belzunegi, Arizkunenea-n, 12:00etan) eta aizkora-txapelketa (12:30ean) antolatu dira.